

2018KO LAN POLTSEN HAUTAKETA BATZORDEAREN AKTA

Garbitania Zero Zabor S.M.ko koordinatzaileen lan poltsa handiagotzeko; Administrari bat kontratatzeko eta lan poltsa eratzeko; gidari biltzaile, hezitzaile eta ingurumen teknikarien lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua.

Data: 2018/05/24

Tokia: Lastaolako bulegoa

Ordua: 09.30

AZTERGAI ZERRENDIA

1.- Idazkari aldaketaren proposamena onartzea.

Hautaketa Batzordearen 2018/02/23an egindako bileran, Idazkariaren izendapena egin zen. Laura Totorikaguena-ren behin betiko baja dela eta bere orde, behin behinean Eneritz Gurrutxaga Batzordeko Idazkari izendatzeko proposamena luzatu da eta aho batez Hautaketa Batzordeak onartu du.

2.- Izandako alegazioen azterketa.

Jasotako dokumentazioarekin espedienteak osatu ondoren, aurkeztutako 3 alegazio eta txosten juridikoak aztertu ditu Hautaketa Batzordeak.

34.090.360S: alegazioa epez kanpo jaso da, maiatzaren 21ean e-mailez, beraz ezin da onartu.

72.516.664X: alegazioa bidalketa moduari buruzkoa izan da, Correosen ez omen zioten dokumentazioari data jarri eta epez kanpo aurkeztu zuen. Txosten juridikoa argia da bidalketa moduari buruz, bai oinarriari eta bai legeri dagokionez, beraz ezin da onartu.

35.775.687S: Alegazioan bere desadostasuna azaltzen du 18. arrazoia dela eta baztertua izan delako, eta aurreko lan poltsa indarrean dagoen ala ez buruzko zalantza agertu du. Txosten juridikoak lan poltsaren oinarriak, 6/1989 legea, barne hitzarmena eta orain dela lau urteko lan poltsa aztertu ondoren, mantentzen du pertsona hau baztertuen zerrendan mantendu behar dela.

Hautaketa Batzordeak aho batez onartu du txosten juridikoaren arabera 3 pertsona hauei aurkeztutako alegazioari erantzuna ematea eta hirurak baztertuen zerrendetan mantentzea.

3.- Behin betiko zerrenden onarpena.

Akta honi eransten zaizkion behin betiko zerrendak aho batez onartu ditu Hautaketa Batzordeak, lehenbailehen argitaratuak izan daitezen.

4.- Lehenengo ariketa teorikorako tokia, datak eta ordutegiak onartzea.

Lehenengo ariketa teorikorako ondorengo tokia, datak eta ordutegiak onartu dira aho batez, lehenbailehen argitaratuak izan daitezzen.

Tokia: BETERRI, Florida auzoa 28 – 20120 Hernani


Datak eta orduak:	Ekainaren 20an	09.00	Ingurumen Teknikari
	Ekainaren 20an	11.00	Hezitzaile
	Ekainaren 20an	13.00	Administrari
	Ekainaren 22an	09.00	Koordinatzaile
	Ekainaren 22an	11.00	Gidari Biltzaile

5.- Bilerako aktaren onarpena eta sinadura, lehenbailehen web orrian argitaratzeko.


Sinatutako akta hau eta behin betiko zerrrendak maiatzaren 25ean argitaratuta egongo dira Garbitaniaren web orrian.

Eta honekin, bukatutzat eman dugu bilera, 11.00etan.

Hernanin, 2018ko maiatzaren 24an



Mattin Aldaia (Lehendakaria)



Eneritz Gurrutxaga (Idazkaria)